

# HERNANIK

# kronika

2004 urtea  
Apirilak 13  
Asteartea  
Alea: 1076  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Etxeko laguntza: geroz eta pertsona gehiagok eskatzen duen zerbitzua

■ Batez ere edadeko pertsonei ematen zaien zerbitzua da: ohetik jeikitzen lagundi, garbitasuna egin, jantzi, erosketak egin, zenbait gestio eta abar ■ Gaur egunean Hernanin 89 pertsonek jasotzen dute laguntza hori.

ETXEZ etxeko laguntza zerbitzuak 22 urteko historia du Hernanin eta geroz eta jende gehiagok eskatzen duen laguntza da. Gaur egunean 89 pertsonek jasotzen dute zerbitzu hau eta 35 langile ari dira lanean. Etxeko laguntza da, azken batean, eguneroko etxeko martxa eramateko arazoak dituenari laguntzeko sistema. Hamarretik bederatzitan edadeko pertsonei ematen zaie, baina, baita gazteei ere, familiako gorabeherak edo bestelako ezintasunen bat medio. Zerbitzua jasotzen duen jendeak gogotik estimatzen du laguntza. Oinarritzko lanak egiteaz gain, askori seguritatea, babes eta bizi poza ere ematen die.

Etxeko laguntza orduka ematen da. Gehienek etxeko lanak eta garbitasuna eskatzen dituzte, eta egunero 2 orduko zerbitzua izaten da hori. Aurren, denera, 32.000 ordu emango dira, iaz baino 10.000 gehiago. Andoni Amonarrazu buru duela, Ongintzako zuzendaritzak onartu berria du zerbitzu zabaltze hori lehenbailehen martxan jartzea. Zerbitzua haundituta, laguntza zai zeuden behar haundieneko kasuak kubrituta daudela diote Ongintzan. Hala ere, ikusten dute beste 18 pertsona daudela laguntza hori eskatuta daudenak.

### Familia inplikatu

Etxez etxeko zerbitzuak oinarritzko lanak egiten ditu, beharrak ikusita: ohetik jaiki eta ohean sartzen lagundi, pertsonaren eta etxeko garbitasuna, erosketak, jana jarri, arropa lanak, medikuak agindutako tratamendua zaindu eta abar. Baino, ez da beti erreza



Etxeko laguntzak estimazio haundi du.

### ETXEKO LANAK ETA KONPAINIA

Gehienek etxeko lanak egitea eskatzen dute eta aldi berean etxearen bizi den edadetuan konpaina ere egiten zaio. Hori asko eskertzen dute

izaten zehaztea zer den langile horien lana. Batzuetan, ez dagozkien lanak ere egiten dituzte, baina, etxeko zerbitzuaren helburuetako bat familia inplikatza eta zaintzen duten pertsona familiaren laguntza ere izatea bada. Eta horrekin batera,

zerbitzuak laguntzen du pertsona hori ahal den arte bere ingurunean mantentzen.

Etxeko laguntza goizeko 08:00etatik iluntzeko 20:00ak arte ematen da, berez. Hala ere, gehienek 09:00etatik eguerdiko 13:00etara hartzen dute. Asteburuetan ere ematen da behar izan ezkerro, baina, normalean ez da kasurik izaten. Aste Santuan, adibidez pertsona batek jaso du etxeko laguntza.

### Moldatzeko baliabideak

Etxeko laguntza behar duten pertsonen batzuetan etxe barruan hobeto moldatzeko

### ZERBITZUAREN HELBURUA

Pertsona helduei eta orokorrean, etxearen laguntza behar duten pertsonei laguntza osoa ematea da. Laguntza eskatzeko arraioa eguneroko bizi moduan moldatu ezina da.

### ZERBITZUAREN MAITASUNA

Beharraren arabera erabakitzen da zenbatero eman laguntza: egunero ordu bat, astean 4-6 ordu. Kasu berezi bat dago eta pertsona batek egunero 3 orduko laguntza jasotzen du.

### FINANTZIAZIOA

Diputazioak, Udalak eta norberak. Orduko 42 zentimotik 14,80 euro arte ordaintzen du norberak, diru sarreren arabera. Zerbitzu osoak 533.518 euroko aurrekontua du eta aurten 32.000 ordu emango dira.

gauzak behar izaten dituzte: grua, takataka, komon bereziak, ohe bereziak eta abar. Baliabide horiek denak zerbitzu horren bidez debalde lortzeko aukera izaten da, eta bestetan Ongintzak laguntzak ematen ditu etxeen jartzeko.

### Baserrietara

Etxeko laguntza baserrietara ere iristen da eta hiru etxetan ematen da. Ongintzak orain ikerketa berezi bat egingo du baserri munduko behar sozialak aztertzeko.

Etxeko laguntza eskatzenko Ongintzan hartu behar da ordua. 943-55 78 54. □

## Mendi irteera Itsasuko Artzamendi tontorrera

MENDIRIZ Mendik irteera antolatu du datorren iganderako. Lapurdiko Itsasu herritik atera eta Artzamendi (926 metro) dute igoztekoa, Bidarraira jaisteko. Roland-ko pasabidetik eta Arpeako Saindutik pasako dira ibilaldian, Bidarraira iritsi aurretik. Izen ematea ostegunean egin behar da Mendiriz Mendi elkartean, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara.

Bestalde gaztetxoentzako menidi irteera apirilaren 25ean da Beasaingo Usurbe mendira (707 metro) eta izen ematea apirilaren 22a baino lehen egin behar da, Mendiriz Mendi bertan, astelehen, ostegun eta ostiraletan, 20:00etatik 21:00etara. □

## Igor eta Erasek irabazi dute Garin tabernako futbolin txapelketa

FUTBOLIN txapelketa jokatu dute Garin tabernan eta Igor eta Erasek irabazi dute, finalean Jexux eta Bixintxori 10-8 irabazita. Hurrengo gelditu direnak: Xixa-Joanes, Insumiso-Txato, Asier-Dabid, Txusta-Imaz, Zesar-Iturri, Kalamar-Ekaitz, Bittor-Joxe eta Petto-Alazne. Sailkapeneko azken postuan H-Pol beteranoak gelditu dira. □

## 'Herri Arteko Elkartasun mus txapelketa' ostegunean

DATORREN ostegunean jokatuko da Garin tabernan Herri Arteko elkartasun mus txapelketa lehen fasea, arratsaldeko 21:00etatik aurrera. Finala jokatzen duten bi bikoteak eskualdeko finalera pasako dira eta finala datorren larunbatean da Usurbilen, Aitzaga tabernan. Hernanin txapeldun gelditzen den bikoteak afari bat irabaziko du eta eskualdeko lehenengo 4rentzat daude sariak Usurbilgo finalean. Izen ematea 20 euro bikoteko. □

**Allianz**  
ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Telf.: 943 557 326  
656 735 109

**PROKOLOR ZENTRUA**  
**MARGOAK**  
**Landaribar, s.l.**  
► Industria dekorazio rako pinturak  
► Lurra jartzen ditugu  
► Pintatutako paperak  
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

Hernaniko kronikako laguntzale:  
**ORAUNE PROMOZIOAK**  
ORAUNE PROMOCIONES

**TILIN \* TTOLONE**  
**BELAR DENDA**  
- DIETISTA  
- NATURISTA  
- MEDIKUA  
TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK  
Ttilin Ttolon Belardenda  
Txirrita 10 - Tel.: 943 55 56 94

**GARAYAR AUTOBUSAK**  
Autobus zerbitzua  
Linea erregularrak  
  
Zerbitzu diskrezzionalak (ESKOLARRAK)  
Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani  
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain  
Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662  
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es  
20120 Hernani (Gipuzkoa)



**Antonio Apezetxea, Patxi Apezetxea eta Jualian Pagola errenkadan, mahai gaineko ardiak mozten.**

# **Ardi mozten, udako beroak hasi aurretik**

UDABERRIA izaten da ardiak  
mozteko garaia, udarako be-  
rrorako pronto egon daitezen.  
Hernani inguruan, leku ge-  
hientsuenean bezalaxe, bakan-  
tzen ari dira artaldeak, baina,  
bada oraindik ofizioari eusten  
dionik eta Antonio Apezetxea,  
Patxi Apezetxea eta Julian  
Pagola dira horren adibide.


Ardi mozten aritzen diren  
hiru lagun hauek garai bateko

eran aritzen dira ardi mozten, goraizeekin. Praktika eskatzen duen lana da ardi moztearena, baina, kolpe asko huts egin gabe aritzen da hirukotea: goraizeak harraitzean ondo zorroztu, ardiari lau hankak lotu eta mahai gainean jarrita ilea moztu.

Urnietako Perurenaren artegian aurkitu ditugu eta beren hitzetan hemendik eta ekain Krolikari esan dionez. Gaur egun gutxi ordaintzen da “eta askotan eramatzen dutenean gustora” esan digu. □

aldera arte Hernani inguruko leku bat baino gehiagotan ariko dira. Iaz 1.000 ardi inguru moztu zituzten eta aur- tetxu

Garai batean estimatua zen artilea, baina, kontu horiek bukatu ziren artzaiaik berak Kronikari esan dionez. Gaur egun gutxi ordaintzen da “eta askotan eramatenean dutenean gustora” esan digu. □



**Garai batean bezala aritzen dira ardi moztuen goraizeekin. Iaz 1000 ardi inguru moztu zituzten.**

# KRONILIA

- Doberako komiki tailerreko lanen tarteak



■ HITZ BITAN



**Iazko Udalekuak, San Fermin egunean.**

 UDALEKUAK HERNANIN

**Izen ematea zabalik apirilaren 30a arte.** Udaleko Euskara Zerbitzuak Udalekuak antolatu ditu 3-10 eta 11-12 urte bitarteko umeentzat. 3-10 urte artekoentzako Udalekua hilabeteko da eta 11-12 urte artekoentzakoa 15 egunekoa. Helduenen Udalekuetan kirol aktibitateak izango dira. Izen ematea apirilaren 30a baino lehen egin behar da eta 77,25 euro kostako da matrikula. Hernaniko ikastetxeetan dabiltzan gazteek bertan eman behar dute izena eta Hernanitik kanporako ikastetxeetan ikasten dutenek Udaleko Euskara Zerbitzuan. Informazio gehiago 943 337029 telefonoan.

 KIROLDEGIA ETA LIBURUTEGIA

**Gaurtik aurrera ordutegi normala.** Aste Santuko oporretan itxita egon da liburutegia eta Kiroldegia goizetik ireki dute. Gaurtik aurrera ordutegi normalera bueltatuko dira eta baita gainerako Udal zerbitzuak ere.

✓ ASTIGARRAGA

**Nikaraguari buruzko erakusketa.** Honek Gobernuz Kanpoko Erakundeak Nikaraguari buruzko erakusketa jarriko du gaur Astigarragako kultur etxearen, datorren igandera arte. Ordua: aste barruan, 18:00etatik 20:30etara; larunbat eta igandean 11:30etatik 13:30etara. Ostegunean *La revolución Sandinista* bideoa botako dute, eta ostiralean *La canción de Carla* pelikula; biak 19:30etan. □

**IRAGARKI MERKEAK**

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: **943 55 02 54 (astelehenetik-ostiraleria) edo 608 12 07 32**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta berte-bralra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (**Sta Barbara 42**)

**ZERBITZUAK**

**TELEFONOAK**

- Taxiak: 943 550093
  - Udaltzaingoa: 943 333288
  - DYA: 943 464622
  - Autobusak: 943 556662
  - Anbulatorioa: 943 006666

**+ FARMAZIAK**

- Egunez: Etxebeste  
Elkano 2  
☎ 943 552087
  - Gaeuz: Urbistondo  
Lasarte. San Francisco 1B  
☎ 916 661807